

artikulu nabarmenak
artículos destacados

martxoa/marzo



[Resolución sobre estándares de calidad en políticas de juventud](#). Consejo de Miembros European Youth Forum. *Cuadernos de Investigación en Juventud*. Mérida: Consejo de la Juventud de Extremadura, enero 2017 (2). ISSN 2530-0091

Testua European Youth Forumek argitaraturiko artikulu baten itzulpena da. Europako Gazteen Foroak sinesten du gazteei buruzko politika positiboetan, eta kalitate-estandar batzuk proposatzeko: giza eskubideetan oinarritutako politikak (gazteei beren eskubideak definitzeko ahalmena ematen diete); egitatean oinarritutako politikak (ikerketan fidagarri eta garrantzizkoak); politika parte-hartzaileak, interesdun guztiak parte har dezaten politikak sortzen diren unetik ebaluatzen diren arte; maila anitzeko politikak (tokikoa, erregionala, nazionala eta europarra); politika estrategikoak (epe luzeko ikuspen juridikoa); baliabidedun politikak (giza baliabideak, prestakuntza-planak, finantzaketa); politika konprometitua (kontu-emateak, fiskalizazioa) eta sektorearteko politikak (ministerio eta beste hainbat organismoren arteko koordinazioa).

)

JIMÉNEZ GODOY, Aurelia. [Los documentos audiovisuales y el espíritu crítico en la adolescencia](#). En: [Variables Psicológicas y Educativas para la intervención en el ámbito escolar](#): volumen II. Alicante: ASUNIVEP, 2016, 131-134. SBN 978-84-617-5569-1

Almeriako Emakume Legelarien Elkarteak lankidetzan dihardu Inquietarte Fundazioarekin, jokabide matxisten normalizazioa desagerrarazteko; proiektio audiobisualetan oinarrituriko unitate didaktikoak antolatzen dituzte, bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduak, batez ere emakumei; proiektioaren ostean, debata. Ondorioztatuenez, informazioa kontsumitzen duten gazteek ez dakite bereizten zer jokabide den legez kontrakoa, ez dira jabetzen gizartean dagoen bortizkeriaz, eta beren garapen kognitiboan eta emozionalean eragiten duten eredu audiobisualak kontsumitzen dituzte. Esperientzia didaktiko audiobisualak behar dira hausnarketa eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

VALDERRAMA SANTOMÉ, Mónica, José Ignacio NIÑO y Juan Enrique GONZÁLVEZ VALLÉS. [Nuevos prescriptores para el público joven en el entorno web 2.0](#). *Opción*. Venezuela, Universidad del Zulia, 2015 **31** (2), 1105-1128. ISSN 1012-1587.

Youtube plataforma esponentzialki hazi da; formatu ezberdinetako iragarki-plataforma bat da, eta "Patnet" programari esker eduki-sortzaileek diru-sarrerak lortzen dituzte. Harpidedun gehien dituzten kanalak ez dira erreproduktzio gehien dituztenak; kanalak era askotakoak dira (tutorialak, musika, zinea, eta abar), baina, Espainian, gameplayak ikusten dira gehien, oso entzule aktiboak dituzte, gazteak, sare sozialetan oso integratuak daudenak. Youtuberrak –oso mundu maskulinoa da– iritzi-liderrak dira, eta garrantzi handia dute markentzat; jarraitzaile fidelak dituzte, haiekin identifikatzen direnak: gazteek haien informazioa bilatzen dute (jokoak, musika, eduki elektronikoak) eta kasu egiten diete zer erosi erabakitzeko orduan



PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA